LEGE AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUA

Txosten zk.: IJ-2020/387

EKIN: 202002000000110902

## TXOSTEN JURIDIKOA, INNOBIDEAK-KUDEABIDE 2020 PROGRAMAREN DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA ONESTEN DITUEN BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA

Txosten hau nahitaezkoa da, baina ez loteslea, eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoaren erregelamendua onesten duen maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren 42. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 15. artikuluan xedatutakoa betetzeko egin da.

Xedapen horien arabera, Lege Aholkularitza Zerbitzu honi dagokio Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak edo Ahaldun Nagusiak onetsi beharreko xedapen orokorren legezkotasunaren barne-kontrola egitea.

Bertan ezarritakoa betez, hau sinatzen duenak honako hau ematen du:

### TXOSTENA

1) Aurrekariak.

a) <u>Txostenaren eskabidearen data eta datuak.</u>

2020ko maiatzaren 12an, Lege Aholkularitza Zerbitzuari esleitu zitzaion, izapidetze

SERVICIO DE ASESORÍA JURÍDICA

Informe nº IJ-2020/387

EKIN: 202002000000110902

## INFORME DE LEGALIDAD SOBRE EL PROYECTO DE DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA POR EL QUE SE APRUEBAN LAS BASES REGULADORAS Y LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DEL PROGRAMA DE INNOBIDEAK- KUDEABIDE 2020

El presente informe, que tiene carácter preceptivo pero no vinculante, se emite en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 42 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 86/2016, de 10 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de estructura orgánica del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, y en el artículo 15 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, según los cuales corresponde a este Servicio de Asesoría Jurídica el control interno de la legalidad de las disposiciones de carácter general que deban ser aprobadas por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral o por el Diputado o Diputada General.

En su cumplimiento, quien suscribe tiene el honor de emitir el siguiente:

### INFORME

1) Antecedentes.

a) <u>Fecha y datos de la solicitud de informe.</u>

Con fecha 12 de mayo de 2020 se asigna al Servicio de Asesoría Jurídica, mediante

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA en www.ebizkaia.eus.

elektronikoaren bidez (espedientea: 202000000110902), goiburuan aipatutako Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretuaren proiektuari buruzko legezkotasun-txostena bidaltzeko.

Txostenaren xedeko foru dekretuaren proiektua xedapen orokor bat da. Honen bidez, foru diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, helburua hurrengoa izanik: Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat egiten duten kudeaketa hobetzeko proiektuak laguntzea, Bizkaiko enpresen lehiakortasuna hobetzeko.

b) <u>Eskabidearekin batera aurkeztu den dokumentazioa.</u>

Legezkotasun-txostenaren eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu da:

- Proposatutako xedapen orokorraren behin betiko testua (maiatzaren 8ko eredua).

- Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren apirilaren 1eko 2406/2020 Foru Agindua, foru dekretua prestatzeko prozedura hastea erabakitzen duena.

- Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa, 2020ko apirilaren 20koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoa dela bide.

- Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena, 2020ko apirilaren 20koa.

- Kontrol ekonomikorako proposatzen duen zerbitzuaren justifikazio-

tramitación electrónica (expediente 202002000000110902), la emisión del informe de legalidad sobre el proyecto de decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia mencionado en el encabezamiento.

El proyecto de decreto foral, objeto de informe, consiste en una disposición de carácter general aprobatoria de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a "apoyar proyectos de mejora de la gestión alineados con el Modelo de Gestión Avanzada que redunden en una mejora de la competitividad de las empresas de Bizkaia".

b) <u>Documentación presentada junto con la solicitud.</u>

Junto con la solicitud de informe de legalidad ha sido aportada la siguiente documentación:

- Texto definitivo de la disposición de carácter general propuesta (versión de 8 de mayo).

- Orden Foral 2406/2020, de 1 de abril, de la diputada foral de Promoción Económica, por la que se acuerda la incoación del procedimiento de elaboración del decreto foral.

- Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica, de 20 de abril de 2020, en virtud de lo dispuesto en el artículo 14 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero.

- Informe de evaluación previa de impacto en función de género con fecha 20 de abril de 2020.

- Memoria justificativa del servicio proponente para control económico con

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA en www.ebizkaia.eus.

memoria, 2020ko apirilaren 20koa.

- 10254/2020 espediente zenbakidun gastu-baimena, 2020ko apirilaren 28ko agiri-datakoa eta maiatzaren 7ko kontabilitate-datakoa.

- Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuak eragozpenik gabe egindako kontrol ekonomikoaren txostena, 2020ko maiatzaren 8koa.

## 2) Eskumena.

a) <u>Gaiari buruzko eskumena.</u>

Autonomia Estatutuaren 10.25 artikuluan ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa duela Euskadiko jarduera ekonomikoa sustatu, garatu eta planifikatzeko, ekonomiaren antolaketa orokorraren arabera.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (lege beraren 7. artikuluan azken erakunde horiei aitortutako eskumenak direla-eta), txostenaren helburu den arau-proposamenaren gaia Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokie, legislazioari zein exekuzioari dagokienez.

Bestalde, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 17.2 artikuluak xedatzen du Foru Aldundiari dagozkiola araubide erkideko aldundien eskumeneko gaiak.

fecha 20 de abril de 2020.

- Autorización de gasto (expediente nº 10254/2020) con fecha documento 28 de mayo y fecha contable 7 de mayo de 2020.

- Informe de control económico emitido sin reparos por el Servicio de Presupuestos y Contabilidad con fecha 8 de mayo de 2020.

## 2) Competencia.

a) <u>Competencia sobre la materia.</u>

El artículo 10.25 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco establece que la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en las materias de promoción, desarrollo económico y planificación de la actividad económica del País Vasco, de acuerdo con la ordenación general de la economía.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 6.1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, con relación a las competencias reconocidas a estos últimos en el artículo 7 de la misma ley, la materia a la que se refiere la propuesta normativa objeto de informe corresponde, tanto en cuanto a la legislación como a la ejecución, a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma.

Por otro lado, el artículo 17. 2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, dispone que corresponde a la Diputación Foral aquellos asuntos que son competencia de las diputaciones de régimen común.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA en www.ebizkaia.eus.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 36.d) artikuluan ezartzen denaren arabera, probintziako lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta plangintza egiteko lankidetza ematea, arlo horretan beste herri-administrazioek dituzten eskumenekin bat etorriz.

Aurreko xedapen horiek kontuan hartuta, ondorioztatu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak proposatzen den xedapen orokorra onesteko ahalmena duela.

b) <u>Proposamena egiten duen organoaren eskumena.</u>

Otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluaren arabera, foru diputatuei dagokie foru dekretu proiektuak proposatzea Foru Aldundiari, beronek onets ditzan, foru diputatu bakoitzaren sailari dagozkion berezko gaietan

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen du. Erregelamendu honen 1. artikuluren arabera, aipatutako sail horri dagokio, jardun-arlo gisa, enpresen lehiakortasuna hobetzea, bereziki enpresa txikiena, berrikuntza ardatz nagusitzat hartuta, eta industria sustatzea -batez ere, Bizkaiko lehentasunezko industria- sektoreak.

Ondorioz, arlo horretako arau-ekimena Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio.

c) <u>Gobernu Kontseiluaren eskumena.</u>

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko

El artículo 36.d) de la Ley de Bases de Régimen Local establece que es competencia de las diputaciones provinciales la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social y en la planificación en el territorio provincial, de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

De lo anterior se deduce la competencia de la Diputación Foral de Bizkaia sobre la materia objeto de la disposición propuesta.

b) <u>Competencia del órgano proponente.</u>

Según el artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, corresponde a los diputados y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento.

El artículo 1 del Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Promoción Económica, aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 207/2019, de 17 de diciembre, atribuye al departamento mencionado, como área de actuación, la mejora de la competitividad empresarial y especialmente de las pequeñas empresas, teniendo como eje fundamental la innovación y el impulso a la industria, con especial atención a los sectores industriales prioritarios de Bizkaia.

En consecuencia, la iniciativa normativa en esta materia corresponde a la diputada foral de Promoción Económica.

c) <u>Competencia del Consejo de Gobierno.</u>

Viene determinada por lo dispuesto en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las



Elektronikoki sinatutako dokumentua. 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA en www.ebizkaia.eus.

3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 artikuluan xedatutakoaren arabera dago zehaztuta.

Instituciones Forales del Territorio Histórico, artículo 17.1º4.

**3) Proposatutako arauaren maila eta dokumentuaren kalitate teknikoa.**

Proposatutako arauaren mailak Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 63 artikuluan ezarritakoa betetzen du.

Edonola ere, dokumentuaren kalitate teknikoari dagokionez, proposatutako testua zuzendu behar da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko uztailaren 4ko erabaki bidez onetsitako araugintza-teknikari buruzko gidalerroetara egokitzeko.

Bereziki gomendatzen da, besteak beste, gidalerro hauek kontuan hartzea:

1. 19. gidalerroa. Onarpen-formula. Onarpen-formula ez dator bat gidalerroetan ezarritakoarekin (*xedatzen dut*).

2. 20. gidalerroa. Ez zaio jarraitzen azalpen-zatiaren eskemari.

3. 23. gidalerroa. Ez zaio jarraitzen azalpen-zatiaren barne-antolamenduari.

4. 32. gidalerroa. Honela eratu behar dira artikuluak:
   2. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

5. 44 gidalerroa. Azken xedapenei buruzko edukia. Amaierari definizioz ez dagozkion manuak atxiki zaizkio.

**3) Rango de la norma propuesta y calidad técnica del documento.**

El rango de la norma propuesta se ajusta a lo establecido en el artículo 63 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

No obstante, en relación a la calidad técnica del documento, se debiera corregir el texto propuesto para adaptarlo a las Directrices de Técnica Normativa aprobadas por Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de 4 de julio de 2017.

En especial, se recomienda la observancia, entre otras, de las siguientes directrices:

1. Directriz 19. Formula aprobatoria. La fórmula aprobatoria no se ajusta al establecido en las directrices (*dispongo*).

2. Directriz 20. No se sigue el esquema de la parte expositiva.

3. Directriz 23. No se sigue la ordenación interna de la parte dispositiva.

4. Directriz 32. La composición del artículo se realizará de la siguiente manera:
   Artículo 2. *Ámbito de aplicación.*

5. Directriz 44. El contenido de las disposiciones finales. Se incluyen preceptos que no se corresponden con esta parte final.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA en www.ebizkaia.eus.

6. 84-87 gidalerroak. Kasu honetan, «onarpenezko foru-dekretu» bidez onetsi nahi dira oinarriak eta deialdia. Hori dela eta, kontuan hartu beharko lirateke aipatutako gidalerroak.

Ildo horretan, uste dugu artikuluak banatzeko erregeletara egokitu behar dela oinarrien banaketa.

6. Directrices 84-87. En el presente caso, las bases y la convocatoria se pretenden aprobar por "decreto foral aprobatorio". Por tal motivo, se debiera tener en cuenta el contenido de las directrices mencionadas.

En este sentido, entendemos que la división de las bases se debe adecuar a las reglas de división del articulado.

4) Ekimena urteko arau-planera egokitzea.

Proposatutako proiektua aurreikusita dago 2020. urteko Araugintza Planean, 08.02 xedapenean.

4) Adecuación de la iniciativa al Plan Anual Normativo.

El proyecto propuesto está previsto en el Plan Anual Normativo 2020, en la disposición 08.02.

5) Erregulazio onaren printzipioen jarraipena eta printzipiook zioen azalpenean jasotzea.

Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluarekin bat, honako hauek dira erregulazio onaren printzipioak: beharrezkotasuna eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, lastertasuna eta efizientzia, herritarren parte-hartzea eta kontuak ematea.

Xedapen orokorraren proposamena aztertu ondoren, sinatzen duenak uste du arau-proposamenak ezarritako erregulazio onaren printzipioei erantzuten diela, proiektuaren justifikazio-memorian adierazitakoaren arabera.

5) Seguimiento de los principios de buena regulación y su reflejo en la exposición de motivos.

El artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, dispone que son principios de buena regulación los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y celeridad y eficiencia, así como de participación ciudadana y rendición de cuentas.

Examinada la propuesta de disposición de carácter general, quien suscribe entiende que la propuesta normativa responde a los principios de buena regulación establecidos, conforme se señala en la memoria justificativa del proyecto.

6) Foru-agindua Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan ezarritako moduan egiteko prozeduraren jarraipena.

6) Seguimiento del procedimiento para su elaboración previsto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero.



Elektronikoki sinatutako dokumentua. 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA en www.ebizkaia.eus.

Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan dago araututa.

El procedimiento para la elaboración de las disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia está regulado en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren apirilaren 1eko 2406/2020 Foru Aginduaren bidez, arau-proiektu hau egiteko prozedura hasi da, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 11.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Por Orden Foral 2406/2020, de 1 de abril, de la diputada foral de Promoción Económica, se inicia el procedimiento para la elaboración del presente proyecto normativo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 11.2 del citado Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero.

Ez dira egin aurretiazko kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz.

No se han realizado los trámites de consulta pública previa y audiencia e información pública, de conformidad con lo previsto en la disposicional adicional segunda del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero.

Oraingo proposamenak, 2020-2023ko Diru-Laguntzen Plan Estrategikoarekin alderatuta, aldaketak jasotzen ditu (hala nola, diru-. laguntzak emateko prozedura, erakunde onuradunak…). Hori dela eta, egoera hau kontuan hartu behar da sail kudeatzailearen DPEan.

La propuesta actual contiene modificaciones respecto al Plan Estratégico de Subvenciones 2020—2023 (P.ej. procedimiento de concesión, entidades beneficiarias…), Por tal motivo, esta realidad se debiera tener en cuenta en relación al PES del departamento gestor.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020ko apirilaren 20ko txosten juridikoa bat dator Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14.1 artikuluan xedatutakoarekin.

El Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica de 20 de abril de 2020, se ajusta a lo dispuesto en el artículo 14.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero.

Epe barruan egin dira, batetik, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena, 2020ko apirilaren 20an, eta, bestetik, eragozpenik gabe egindako kontrol ekonomikoaren txostena, 2020ko maiatzaren 8an.

Se han emitido en plazo el Informe de evaluación previa de impacto en función de género con fecha 20 de abril de 2020 y el Informe de control económico emitido sin reparos con fecha 8 de mayo de 2020.

Beraz, ez dago inolako eragozpenik

Por lo que no hay nada objetar en cuanto al



Elektronikoki sinatutako dokumentua. 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA en www.ebizkaia.eus.

jarraitutako prozedurari dagokionez.

**7) Goragoko antolamendu juridikora egokitzea.**

Goian aipatutako foru dekretuaren proiektua aurreko ataletan aipatutako arautegira egokitzen da eta, bereziki, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Araura eta Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridikoa arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araura.

Hala ere, aplikatzekoak diren gainerako arauei dagokienez, hurrengo iradokizunak planteatzen dira:

- Diru- laguntzen ordainketa aurreratuen kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretuak onartzen duen Diru-Laguntzen Erregelamenduaren 30.2 artikulua kontuan hartu behar da. Hortaz, ez da zertan bermerik aurkeztu behar, ezarritako betebeharrak bete egingo direla bermatuta badago.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 45. artikuluarekin bat, 1. apartatuan aipatutako ebaluazio-irizpideetako bi jaso beharko lirateke, gutxienez ere, oinarrietan eta deialdian. Ildo horretan, ebaluazio-irizpide bakarra jasotzen da 9. oinarrian.

- Segurtasun juridikoa dela eta, sailaren txostenean eginiko iradokizunaren ildotik, komenigarria da aipatzea erakunde interesduna izateko betekizunak daudela operazio- bolumena zein balantze orokorraren inguruan.

procedimiento seguido.

**7) Adecuación con el ordenamiento jurídico superior.**

El proyecto de decreto foral arriba mencionado se ajusta a la normativa citada en los apartados anteriores y, en especial, a la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y a la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia.

No obstante, en cuanto al resto de normativa que resulta de aplicación, se formulan las siguientes sugerencias:

-En cuanto al pago anticipado de subvenciones, de acuerdo con el artículo 30.2 del Reglamento de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, no se constituirá garantía si queda suficientemente asegurado el cumplimiento de las obligaciones impuestas.

-De acuerdo con el artículo 45 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, las bases reguladoras y convocatoria deberían incluir, como mínimo, dos criterios de valoración de los mencionados en el apartado 1º. En este sentido, la base 9º sólo incluye un criterio de valoración.

- Por seguridad jurídica y al hilo de la sugerencia formulada en el informe departamental, sería conveniente incluir en las bases y convocatoria la mención al volumen de operaciones y balance general para obtener la condición de entidad beneficiaria.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA en www.ebizkaia.eus.

8) Aurkeztutako proiektuaren legezkotasunari buruzko ondorioa.

Goian adierazitako foru dekretuaren proiektuaren legezkotasunari dagokionez, ez dago aurka esateko ezer, arestian adierazitako eragozpenak alde batera utzita (3. eta 7. puntuetan).

Horixe da nire iritzia, orain iritzi hori zuzenbidearen arabera baimenduagoa dagoen beste baten eskuetan uzten duelarik.

8) Conclusión sobre la legalidad del proyecto presentado.

Respecto de la legalidad del proyecto de decreto foral arriba mencionado, no hay nada que oponer, a excepción de los reparos antecedentemente señalados (puntos 3 y 7).

Tal es mi parecer que someto muy gustoso a otro más autorizado en derecho.

Sin./Fdo.: UNAI ABERASTURI CANTERA - 2020-05-12
LEGE AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUA-REN LEGE AHOLKULARITZA OROKORREKO LEGELARIA
LETRADO/A ASESORÍA JURÍDICA GENERAL DE SERVICIO DE ASESORÍA JURÍDICA

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 0L5Q-9JRX-M5DA-TEBA en www.ebizkaia.eus.